

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Praktiketako funtzionario izendatzea

Alkatetza honek, 2019ko ekitaldiari dagokion enplegu publikoaren eskaintzan sartutako liburuzain plaza jabetzan betetzeko hauta probetarako epaimahai kalifikatzaileak proposatuta, eta bat etorritik Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 36. artikuluan eta 11/1999 Legeak aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21. artikuluan xedatutakoarekin, alkatearen 2022ko apirilaren 25eko dekretu bidez ebatzi du Josune Arbo Echeberria praktiketako funtzionario izendatzea, Administrazio Bereziko eskalako C1 taldeko derrigortasun data duen 3. hizkuntza eskakizuneko liburuzain plazarako.

Agurain, 2022ko apirilaren 25a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES